

LUIS LLOPIS 'BIYOK'

"Argazkilari arraroa eta perfekzionista izan naiz"

■ Aitona eta aita zena ere fotografoak zituen ■ Bi gela oso ditu Hernaniko argazkiz beteak ■ Udalak artxiboa herriari 'uztea' ere eskatu omen dio.

BIYOK

□ Meridan (Badajoz) jaioa da. 7 urterekin Donostiara etorri zen, eta ezkondu aurretik gaur arte Hernanin bizi da.

□ 13 urterekin hasi zen argazki ateratzen. Jubilatua dago, baina jarraitzen du, afizioz.

□ Lan mota asko egin du: estudiokoa, ezkontzak, bataioak, erreportajeak Galizian...

□ *Diario Vascon* eta *La Voz de Gipuzkoan* batera aritu izan da: batean 'Biyok' zen, bestean Luis Llopis.



Luis Llopis 'Biyok', bere betiko argazki kamara eskuetan duela.

■ **KRONIKA: Noiz eta nola hasi zinen argazki ateratzen?**
BIYOK: Nik familian ia denak argazkilariak ditut. Garai hartan, 14 urte zituenak edo karrera ikasten edo lanean hasi behar zuen. Eta ni aitari laguntzen hasi nintzen. Han aritzen ginen: ilunpean zegoen koartxoan sartu eta balde banatan produktoak genituela argazkiak errebelatu, garbitu...

■ **Nolakoa zen garai hartako argazki lana?**

Orduan, argazkiak etxeetako terrazetan egiten ziren, eta egunez. Gauez bazen, magnesioarekin ibiltzen ginen: artean ez zegoen flashik. Argazkiak plaketan ateratzen genituen. Ma-

kina txikiak gerokoak dira. Lehen dena eskuz egiten zen: errebelatu, garbitu, itsatsi...

■ **Eta Hernanira, nondik norra etorri zinen?**

Hemen banituen lagunak. Behin, ezkontza batean argazkiak ateratzera joan eta Hernaniko neska bat ezagutu! Handik bi urtera ezkondu nintzen, eta denda jarri genuen gero. Emazteak izugarri lagundu dit.

■ **Hernaniko Zenbat argazki daukazu?**

Bi koarto beteak. Dena artxibatu dago; baina, ordenatzea falta zait. Udaletxetik etorri zaizkit nere artxiboa nahiko luketela esanez. Artxibo hori, ordea, lan eta diru asko kosta zaigu

guri. Gainera, orain seme-alabek hartu dute ofizioa eta berentzat uzteko asmoa dut.

■ **Atera duzun Hernaniko argazkirik politena?**

Bat, hola esateko ez daukat. Ni arraroa eta perfekzionista izan naiz eta beti bilatzen dizkiek akatsak nire argazkiei. Batzuk bereziak badauzkak: Hernani buelta osoan etxerik ez zenekoak, Zinkoenean rotondarik ez zenekoak, Obispoak Sandiusterriko lehen harria bedeinkatu zuenekoak...

■ **Ez al duzu inoiz pentsatu herriko erakusketa jartzerik?**

Bai, aspalditik dabilkit hori buruan, baina, denbora hartu behar dut. Ea datorren San Joa-

Mus eta Tute Txapelketa Karabelen, gaur eta bihar

Gaur musa jokatu da 15:30etan hasita, eta bihar tutea, ordu berean. Denera, 20 bikote inguru izango dira bakoitzean. Partidak: auzo elkarteko egoitzan (Zubieta sarreran, ezkerretara dago).

■ FUTBOLA. EMAKUMEZKOEN LIGA

Hernani-Zarautz gaur, Zubipen

■ Txuri Berdeak hirugarren dihoaz ■ Zarautz azken aurreko (10garren) ■ Arratsaldeko 16:30etan.

HERNANIARREK aise hartu beharko lukete Zarauzko taldea mendean, gaur, Zubipen. Lehengo astean *Luberriri* etxean irabazita, moralez altu aterako dira neskak. Ea ba lehen postu hoietan jarraitzeko moduan diren.

SAILKAPENA

1.- Ostadar	30 puntu
2.- Antoniano	23 puntu
3.- Hernani	22 puntu
4.- Usurbil	21 puntu
5.- Tolosa	18 puntu
.....	
10.- Zarautz	3 puntu. □

HERRIKO XAKE TXAPELKETA

Astebete barru amaituko da lehen fasea

■ Azaroaz gero, ari dira lau tabernetan jokatzen.



Iñaki Iruretagoiena alfila mugitzera doala. Lau peoi eta bi zaldi jan dizkiote zuriek.

AZAROAN hasi zen 40 jokalariarekin eta datorren igandearako (abenduak 17) lehen faseak bukatuta beharko du. Berez, fase hau denek partid

batzuk jokatu eta txapelketari pultsua hartzeko zen: hurrengo fasera denak pasako dira eta han hasiko dira benetako kanporaketak. □



Antziola-Motor

Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziaketak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - HERNANI
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96



EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30 etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Skoda Octavia. Bizitza osoa aurretik.



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.* (11.990,19 euro*)
*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

Gaztain erreak, Plaza Berrin, negu osoan

■ Oraingoz, Baztango gaztaina ari da saltzen ■ Dozenak 200 Pta egiten du.

BAZTANEN biltutako gaztainak oraintxe ari omen zaizkio bukatzen *Puari*, Plaza Berriko gaztain saltzaileari. Dagoeneko Zamora, Avila, Galizia... leku askotakoak lortu ditu, ordea. Kanpaina Granadako Alpujarratakoak saltzen bukatuko du.

UDABERRIRA ARTE

Azaro erdi aldera ireki zuen *txiringitoa* eta udaberrira arte egongo da zabalik. Saltzen ari den guztia ikusita, ez omen daki zer egingo duen hotzak astean: “postua haunditu edo...”

Bigarren urtea du gaztaina saltzen; lehen, bere lagunak aritzen ziren. Aurten, dozena Donostian baino 10 duro merkeago, eta “bat edo beste propina”. □



Txipli, txapla pum! Hi *Pua*, ekatzak dozena bat.

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ FUTBOLA

Emakumezkoen Liga:
Zubipen 16:30etan.

Hernani - Zarautz
Gazteen liga nazionala:
Gasteizen (Lakua) 15:45etan.

Alaves-Hernani

Gazteen 2.maila:

Zubipen 11:00etan.

Hernani- Urmieta

IGANDEA

■ FUTBOLA

3.maila

Zubipen 16:30etan

Hernani -San Pedro

Gorengo maila

Astigarragan 15:30etan.

Mundarro-Hernani

■ ESKUBALOIA

2. Nazionala:

Kiroldegian 18:00etan.

Hernani-Galdakao

■ PELOTA

Profesionalak:

Ekoran (Araba) 17:30etan.

Telletxea-Fuertes

Mendia-Oiaga

■ HITZ BITAN



Sondarekin lanean atzo fibra optikoa sartzeko zuloa egiten.

✓ TELEFONOA

Fibra optikoa sartzeko zuloa pronto Elkano kalean. Atzo egun osoan, Urumea ikastolako parean, obran aritu ziren *Euskaltel*entzako fibra optikoa sartzeko zulo eginean. Sondarekin hustu zituzten barruak. Gaur kalea zabalik izango da.

✓ BEHEMENDIKO AZOKA

Gaur, larunbata, goizetik eguerdira arte, Plaza Berrin. Baserriko produktuak egongo dira salgai; hainbat herrietatik ekarritakoak. Behemendiko azokan hogeitabost bat postu izaten dira, larunbatero herri desberdin batean. Hernanin hileroko bigarren asteburuan egokitzen da. Jeneroa, denetarikoa: sagar, gozo, pate, orein, talo, ezti, gazta, eskulangintza... bada aukera.

✓ KRONIKA TELEBISTAN

Hernaniko Kronika ETB-2an aterako da gaur. Lengua Viva saioan orain bi aste egindako elkarrizketa botako dute, 11:30etan. □

AGENDA

❖ ERAKUSKETA

Alberto Elosegiren argazkiak.

Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

❖ ZINEA

Helduentzako: Road trip
Biterin, 19:30-22:30

Umeentzako: Los Picapiedra en viva Rock Vegas
Biterin 17:00etan

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes Etxeberri, ☎ 943 557738
►Gauz: Gil Lasarte. Nagusia, 24 ☎ 943 361529

HISTORIAN BARRENA

KARL WILHEN VON HUMBOLDT “ERNANIN” ERE IZAN ZEN

■ DURANGOKO azokak Euskal Herriarekin lotura izan duten bidaiari alemaniarrek omendu nahi izan ditu, aurten. Aitzakia: 200 urte direla Humboldt bigarren aldiz Euskal Herrian izan zenetik. Ez zen lehena izan, XV mendeaz gero bidaiari alemaniarrek Euskal Herrian izan dira-eta; eta orain ere badira lur honetaz maiteminduta dauden alemaniarrek.

HERNANIK TXORATUTA

Orain dela 200 urte Euskal Herria bisitatu zuen W. Humboldt. Hemen hartu datuak eta Europan barrena zabaldu zituen gero. Hernaniri buruz hala idatzi zuen:

“...Donostian nengoela denbora gutxi izan nuen ibilaldiak egiteko, baina, Urumea ibaia jarraituz... Ernani aldera... Euskal

Herriko hain polita den paisaia berrir aurkitu nuen...”

Eta beste pasarte batean: “...Billabonan Errege Bidea hartu nuen, Madriletik datorrena... Bide honetan Ernaniatik Oiarzunera doan bitartea, dudarik gabe, zoragarriena da...”

“Ernani” izena ere zabaldu zuen Humboldt.

Jesumari Gomez
Udal Artxiboa

IRAGARKI MERKEAK

■ Furgoneta bat daukat saltzeko: Zazpi eserlekuko Mercedes Vito bat; hiru urte eta erdi ditu.

☎ 943-332937



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak

winterthur

ASEGURUAK

Esnal- Agentzia, C.B.

Aseguru agentzien Elkarte- Inskripzioa zkia 20-2005

Jose Joakin Esnal Muguruza

Aita Kardaberaz, 68
Tel.- Faxe 943 55 06 28
20120 Hernani



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietara Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



HERNANI (Gipuzkoa)



PROCOLOR ZENTRUA

Landaribar, s.l.

Pintatzeko kipoak
Industri eta dekoraziorako pinturak
Pintatutako paperak

Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI

USURBILEN

TAKOLO PIRRIXX ETA PORROTX “PARRANDAN”

OIARDO Kiroldegian
Abenduak 17, igandea
Arratsaldeko 4'30etan eta 6'30etan

SARRERAK: LETE LIBURUDENDAN
aurretik: 650 pta. egun berean: 800 pta.

Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak